

Udal zergen karga/tasak behin betikoz onartzea, 2013. ekitaldia

2012ko urriaren 9an Osoko Bilkurak egindako bileran, 2013. ekitaldirako Udal zergen karga/tasak hasiera batez onartzea erabaki zuen.

Karga-tasa horiek jendaurrean egon dira 30 egunez eta ez da erreklamaziorik egon.

Ondorioz, Udal zergen karga-tasak behin betikoz onartuak ulertzen dira.

Beran, 2012ko abenduaren 17an.-Alkatea, M.^a Sol M. Taberna Iratzoki.

ERANSKINA

2013. URTEKO UDAL ZERGEN KARGA-TASAK

1) Hirilur kontribuzioari %0,215eko karga-tasa eta Landalur kontribuzioari, berriz, %0,80koa ezartzea.

2) Izaera urbanoko terreneen balio gehikuntzaren gaineko zerga:

Gehikuntza errealaren zenbatekoa finkatzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikulua agertzen diren gutxien urteko portzentajeak aplikatzea. Karga-tasa %10a izanen da.

3) Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari %4,5eko karga-tasa ezartzea.

4) Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga:

1,3 gutxieneko indizea aplikatzea.